

KANALAK

Gure enpresaren kanalei dagokienez, gure salmentak online bidez egingo dira, denda fisikoetan ere salduko dugu gure produktua, gehienbat kirol dendetan salduko ditugu.

Gure webguneari dagokionez interneten bidez salduko dugu gure produktua, gure produktua etxerako zerbitzua izango du, beste enpresa batzuen bitartez gure produktua zure etxera eramango dute, hau egiteko “*Amazon* edo *Aliexpress*” erabiliko dugu.

Etxerako zerbitzuaren kostuak 10 euro gehiago balioko du denda fisikoa baino. Gure produktua Amazon edo Aliexpress bitartez mundu osorako izango dugu garraioa.

Gure banaketa kanala laburra izango da, gure bitartekari mota xehekarria izango da.

Gure enpresak produktua supermerkatuetan ere salduko du, supermerkatuak izango dira *Decathlon*, *Forum Sport*...

Gure enpresak pentsatu du ere erosle ohikoei txartela baten bitartez deskontuak egitea, honen bidez etekin handiagoak lortzea espero dugu.

Salmenta handietan ere deskontuak egingo ditugu, 200€tik gorako erosketetan %10eko deskontuak egingo ditugu, eta beste enpresa asko bezala familia txartela edukiko dugu, familia handiko pertsonak deskontu bereziak edukiko dituzte.

Gure banaketa mota eksklusiboa izango da, lehen esan dudana bezala gure banaketak *Amazon* edo *Aliexpres*ekin egingo du, gure sektoreak ez dauka konpetentziarik ez daudelako gure produktuaren antzeko salmentarik mundu osoan zehar, beraz ez daukagu zertan kezkatu beharrik arazo horretaz.

Gure produktuak arazoren bat badauka gure enpresara bueltatuko da dohainik eta guk arduratuko gara produktu hori konpontzeaz edo beste berri bat emateaz.